

# **Kutxabank Taldea**

---

## **Politika Fiskal Korporatiboa**

<b>Bertsioen kontrola</b>			
<b><u>Bertsioa</u></b>	<b><u>Data</u></b>	<b><u>Arduraduna</u></b>	<b><u>Deskribapena</u></b>
<u>1.1</u>	<u>2022/06/23</u>	<u>Administrazio Kontseilua</u>	<u>Estrategia fiskala</u>
<u>2.1</u>	<u>2024ko abendua</u>	<u>Administrazio Kontseilua</u>	<u>UNE 19602 araura eta merkatuko jardunbide egokienetara egokitzea</u>

### **Aurkibidea**

1.	Sarrera .....	3
2.	Politika fiskalaren egiletza eta onarpena .....	3
3.	Helburua .....	4
4.	Politika fiskalaren aplikazio-eremua .....	4
a.	Eremu objektiboa .....	4
b.	Eremu subjektiboa .....	4
5.	Politika fiskala .....	5
a.	Funtsezko zutabe fiskalak .....	5
6.	<i>Compliance</i> tributarioaren organoa .....	8
7.	Diziplinazko sistema .....	8
8.	Salaketa- eta kontsulta-kanala .....	8
9.	Zabalkundea eta prestakuntza .....	9
10.	Politika fiskal hau berrestea eta eguneratzea .....	9

## **1. Sarrera**

Kutxabank Taldeak, bere fundazio-ibilbidearekin leialtasunez, gizarte-konpromisoa du bere jardueraren garapenerako ardatz nagusi. Taldeak berezkoa duen konpromiso horri esker, posible da egonkortasunez mantentzea Taldeak gizartearekiko duen erantzukizunaren zentzu nabarmena.

Politika fiskala Erakundearen gobernu-politiken eta Araudia Betetzearen politiken parte da; bere helburu nagusia da **zerga-arloko printzipio gidariak garatzea eta eraginkortasunez implementatzea.**

Aurrekoarekin bat etorritik, Kutxabank SAren (aurrerantzean, “Kutxabank” edo “Erakundea”) Administrazio Kontseiluak, Taldeko sozietate nagusia den aldetik, konpromisoa hartu du enpresa-politika gardena etengabe lideratzeko, zuzentasun- eta zintzotasun-printzipioak oinarri hartuta eta Taldea presente dagoen komunitateen garapen ekonomikoarekiko konpromiso sendoari jarraikiz, betiere legea zorrotasunez errespetatuz.

Horri dagokionez, erakundean indarrean dagoen Jokabideen Kodea –zuzendaritza-taldearen, langileen eta Administrazio Kontseiluko kideen jokabidea eta portaera gidatzen duena– aintzatespen orokorreko gobernu onaren gomendioen eta Kutxabanke onartutako gizarte-erantzukizun korporatiboko printzipioen esparruan onetsi da, eta hori betetzeko oinarrizko erreferentzia izango da.

Kode honek, Erakundearen misioan, ikuspegian eta balioetan oinarrituta, erakundeak bere jardunaren eremu guztietan enpresa-etikaren printzipioekin eta gardentasunarekin duen konpromisoa jasotzen du, horrela interes-taldeekin harreman bikainak mantendu ahal izateko, Erakundearen hazkundearekin eta garapenarekin konprometitutako langileekin bat, bere printzipioak eta balioak sustatuz.

Ikuspegi horrekin, Kutxabanke, aipatutako konpromisoarekin eta bere Jokabideen Kodea arautzen duten balioekin bat etorritik, Politika Fiskal Korporatibo hau (aurrerantzean, “politika fiskala”) ezartzea erabaki du.

## **2. Politika fiskalaren egiletza eta onarpena**

Taldeko Finantza Zuzendaritzako Aholkularitza Fiskalak landu du Kutxabank Taldearen politika fiskala, eta Kutxabankeko Administrazio Kontseiluak onetsi zuen 2024ko abenduaren 19ko bilkuran.

Politika fiskala indarrean jarriko da onetsi zen datatik aurrera, eta, bi urteko aldi gutxienez, Taldeko Finantza Zuzendaritzak berrikusi beharko du.

Zerga-politika etengabe garatu eta hobetuko da Korporazioaren Arrisku Fiskalak Kudeatzeko eta Kontrolatzeko Sistema (“**Compliance tributarioaren Sistema**”) osatzen duten barne-araudi batzuen bidez.

### **3. Helburua**

Dokumentu honek Kutxabank Taldearen politika fiskalaren helburuak eta zerga-arloko oinarrizko jarduketa-printzipioak ezartzen ditu, Taldeak jarduera garatzen duen lurralde desberdinetan ezarritako zerga-eskakizunak zorrotasunez errespetatuz eta betez.

Horrela, politika fiskal honek zerga-betebehar guztiak betetzeko konpromisoa jasotzen du, aurrerapen ekonomiko eta sozialari lagunduz. Aldi berean, kudeaketa eraginkorra sustatzeko konpromisoa bateratzen du, erakundeko fundazio akziodunentzat balioa sortzeko aukera emanez. Horri esker, fundazio horiek Gizarte Ekintzaren garapenean duten funtsezko zereginarekin aurrera jarraitu ahal izango dute.

Konpromiso horren helburua da, halaber, zuzendaritza-taldearen, langileen eta Administrazio Kontseiluko kideen portaera zergen arloko jardunbide egokienetara egokitzea. Berezi, Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Zerga Agentziak eskatuta 2010eko uztailaren 20an onetsitako Zergen arloko Jardunbide Egokien Kodean jasotako irizpideetara. Horrela, erabaki fiskal egokiak hartzeko modua izango da, betiere une bakoitzean aplikatzekoa den araudia betetzen dela ziurtatuz.

### **4. Politika fiskalaren aplikazio-eremua**

#### **a. Eremu objektiboa**

Politika hau Kutxabank Taldeari aplikatzekoa izango da, hurrengo 4.b atalean definituta dagoen bezala, eta Taldearen jarduketaren eremu geografiko guztietan, garatzen den jarduera edozein dela ere. Politika hau Taldeari aplikatzekoak zaizkion zerga guztietara (zergak, tasak eta kontribuzio bereziak) hedatuko da, eta Taldearen zerga-betebehar guztiei dagokienez, betebeharrak nagusiak, formalak, osagarriak, informazio-trukekoak, konturako ordainketak nahiz atxikipenak izan.

Politika fiskala aplikatuko zaio, halaber, zerga desberdinen kontabilitate-erregistroari, bai urteko kontuak formulatzeko, bai Finantza Zuzendaritzak egindako aldizkako txostenei eta Taldearen finantza-aurreikuspen eta proiektioei dagokienez.

#### **b. Eremu subjektiboa**

Politika fiskal hau nahitaez aplikatu beharko dute bai Kutxabankek eta bai Kutxabank Taldea (aurrerantzean, "Taldea" edo "Kutxabank Taldea") osatzen duten sozietate guztiek, CajaSur Banco SAU eta haren mendeko sozietateak barne, edozein dela ere ekintza-eremu geografikoa.

Hala ere, Kutxabank Investment SV SAUri (lehen Norbolsa Sociedad de Valores SA) eta Fineco Sociedad de Valores SAri, nahiz eta Kutxabank Taldeak kontrolatzen dituen erakundeak izan, Politika honetan ezarritako balioak eta printzipioak betetzen dituztela monitorizatzeko aukera emango duten tributu-alderdi jakin batzuen berri emateko eskatuko zaie, kudeaketarako funtzio fiskal propioa baitute.

Taldeak kontrol eraginkorrik ez duen edota haien kudeaketa fiskala bere gain hartzen ez duen sozietate partaidetueta, Korporazioak Politika honetan ezarritakoarekin bat datozen printzipioak eta gidalerroak betetzea sustatuko du.

Politika fiskalaren xede dira Taldeko kide guztiak, administratzaileak, zuzendaritzako kideak eta enplegatuak barne, politika horrekin lotutako prozesu tributarioak egitean eta exekutatzean zuzenean nahiz zeharka parte hartzen dutenak.

## **5. Politika fiskala**

Kutxabank Taldeak jarraitutako politika fiskala bideratuta dago Taldeko erakunde guztien zerga-betebeharrak zorrotasunez betetzera, jarduten duten lurralde-eremuan eskumena duten zerga-agintaritzen aurrean, Taldearentzat garrantzitsua den eragiketa bakoitzean hartutako zerga-posizionamenduak behar bezala kontrastatuz eta dokumentatuz, kontuan hartuta, gainera, zerga-politiken arloko posizionamendu eta erabaki orok Taldea osatzen duten erakundeen negozioaren garapen arduratsua babestu behar duela.

Puntu honetan, azpimarratu behar da Taldearen politika fiskala arautzen duen funtsezko irizpidea dela egindako eragiketen errealitate ekonomikoari erantzutea; hau da, eragiketa horien azpian dauden arrazoi ekonomikoari, edozein plangintza artifiziosu edo erasokor saihestuz.

Ildo horretan, zergen arloan irizpideak ezartzean erabilitako zuzentzea eta arrazoizkotasuna guztiz bat datoz, nola ez, Taldeak merkaturatutako produktu eta zerbitzuen izaerarekin, bai eta hartutako erabaki korporatiboekin ere.

### **a. Funtsezko zutabe fiskalak**

Beraz, Kutxabank Taldearen politika fiskala arautzen duten funtsezko printzipio orokorrak hauek dira:

#### **✓ Zorrotasunik eta arretarik handiena Taldearen arrisku fiskala kudeatzeko eta kontrolatzeko prozeduretan**

Aurrekoarekin bat etorriz, Kutxabanke dagozkion kontrol-mekanismoak aztertzen eta ezartzen ditu bere zerga-betebeharrak zorrotasunez betetzen direla bermatzeko, ez soilik aplikatu beharreko zerga-araudien hitzez hitzeko terminoetan, baizik eta aldi berean bilatuz (i) araudi aplikagarri desberdinen helburuarekiko eta espirituekiko koherentzia; eta (ii) azpiko ondorio ekonomikoekin bat datorren zerga-emaizta. Jarduteko modu horren helburua da arrisku fiskalak minimizatzea, auzi fiskalak prebenitzeko eta Taldeak legez hartutako jarduketara fiskalak defendatzeko behar-beharrezkoak diren auzietara mugatzeko.

Printzipio horrek arlo fiskalaren jarduketara guztiak arautzen ditu, eta, bereziki, honako hauek:

- Betebehar korporatibo propioak betetzea.
- Zerga-betebehar operatiboak betetzea.
- Barneko partaideei, bezeroei edo hornitzaileei egindako atxikipenak ordaintzea eta dagozkion zerga-informazioa behar bezala bidaltzea.

- Zerga-informazioaren errekerimenduei erantzutea.

Horri dagokionez, Taldeak jarduteko prozedura ezarri du eginkizun horietarako. Eginkizunok berrikusi eta, hala badagokio, egokitu egiten dira eskakizun fiskal berriak sortu ahala.

#### ✓ Kudeaketa zuhurra eta kooperatiboa

Kutxabank Taldeko sozietateetan lan egiten duten guztiek beren jarduera profesionala garatu behar dute erakundeak bere zerga-betebeharrak behar bezala betetzeko moduan. Filosofia hori Taldearen kudeaketa fiskalari ez ezik, Taldeko bezeroei eskainitako produktuei aplikatzekoa den fiskalitateari ere aplikatzen zaio.

Hau da: Kutxabank Taldeak ez du bere erabakien edota bere produktuen egokitasunaren komenigarritasuna ezartzen errentagarritasun fiskal erasokorretan edo une bakoitzean indarrean dauden politika fiskalekin bat ez datozen zerga-onuretan oinarrituta. Europako "DAC 6" Zuzentarauak administrazio-lankidetzaren arloan aurreikusitakoarekin bat etorritz, erakundeak ez du parte hartzen mugaz gaindiko plangintza fiskaleko mekanismo erasokorretan. Era berean, Kutxabank Taldeak ez du parte hartzen zergak saihestea helburu duten egitura opakuen erabileran, eta ez ditu inola ere sortzen, eskuratzen edo laguntzen Espainiako Estatuak erregelamenduz ezarritako paradisu fiskalen zerrendan jasotako jurisdikzioetako batean edo kooperatiboak ez diren jurisdikzioetan helbideratutako erakundeak.

Aldi berean, eta bere negozioa gero eta digitalagoa eta globalagoa den ingurune batera egokitzuz, Kutxabank Taldeak behatzen du, halaber, ELGAK tributuen arloan ezarritako gidalerroetan ezarritakoa betetzen dela; bereziki, transferentzia-prezioen politikei dagokienez.

Alde horretatik, Kutxabank Taldeak bere transferentzia-prezioen politika aplikatuko du eragiketa lotu guztietan, lehia osoaren printzipioetan oinarrituta (*arm's length*), eta balio-esleipenean, eragiketak egiten dituen jurisdikzio fisikaletan arriskuak bere gain hartzearen eta baliabideen dedikazioaren arabera.

Azken batean, Kutxabank Taldeak eusten dio balio ekonomiko eta sozialeko bere sorkuntza jasangarriko enpresa-politikarekin bat datorren politika fiskalari, dagozkion lege-eskakizunak errespetatzeko eta zorroztasunez betetzeko konpromiso leialarekin.

#### ✓ Efizientzia funtzio fiskalean

Taldearen politika fiskalak balioa sortzea du funtsezko premisatzat. Horrela, Kutxabank Taldearen kudeaketa fiskalak funtsezko jarduketa-jarraibide hauek hartzen ditu barnean:

- Jarduketa posibleak Kutxabanken helburu globalekin lerrokatzea; bereziki, Taldearen politika fiskalarekin.
- Jarduketa-lurralde bakoitzean aplikatzekoa den zerga-araudia zorroztasunez betetzea eta baliabideak efizientziaz erabiltzea, prozesuen estandarizazioaren, digitalizazioaren eta kontrolaren bidez.
- Gardentasuna eta lankidetzaren administrazio fiskal desberdinekin, auzien prozedurak murrizteko.

Arloko *compliance*-funtziotik harago, Kutxabank Taldearen Aholkularitza Fiskalak araudi-aldaketei aurrea hartzea bilatzen du, bai eta eguneratzeak behar bezala inplementatzea

aplikatzekoak diren interpretazio-irizpideetan eta Taldearen interesak behar bezala defendatzea ere, zerga-jurisprudentziaren ezagutza eguneratuan oinarrituta.

Horretarako, Kutxabank Taldeko Aholkularitza Fiskaleko lantaldeak bitarteko pertsonal eta material egokiak izan beharko ditu une oro, eta ezinbestekoa izango da esparru horretan espezializazio tekniko handia duten baliabideak erabiltzea. Ondore horietarako, politika fiskalaren ezagutza eta zabalkundea sustatuko dira, eta prestakuntza- eta informazio-planak ezarriko dira enplegatu, zuzendaritzako kide eta Taldeko Erakundeen Gobernu Organoetako kide guztientzat.

Horri dagokionez, garrantzi berezia du Taldearekin batera sektoreari aplikatu beharreko araudia behar bezala interpretatzen laguntzen duten kanpoko aholkulari fiskal espezializatuen zereginak.

### ✓ Gardentasuna

Kutxabank Taldeak bere jardura ekonomikotik eratorritako tributuak betetzen eta ordaintzen dituela jakinarazten die interes-taldee. Horrela, Kutxabank Taldeak ezarritako kontrol fiskalaren eredian sakondu du, eta ekitaldietako bakoitzari buruzko informazio fiskala borondatez argitaratzen jarraitu du, 2016az geroztik egiten ari den bezala.

Alde horretatik, ekitaldi bakoitzari dagokion "[Kontribuzio Fiskala](#)" izenburupean argitaratutako txostenak aukera ematen du Taldearen ekarpen fiskala ulertzeko, bai bankuaren jardura osorako, bai autonomia-erkidego bakoitzaren mailan.

### ✓ Zerga Administrazioekiko harremanak

Kudeaketa fiskal arduratsuaren aldeko apustuak zerga-administrazio guztiekin lankidetzara betetzea sustatzen du, komunikazio argi, garden eta jarraituan oinarritutako konfiantzazko harreman baten bidez.

Helburu horiekin, Taldea bera presente dagoen merkatuetan egin daitezkeen iruzurrezko jardunbide fiskalei buruzko konponbideak detektatzen eta bilatzen saiatuko da, lehendik daudenak desagerrarazteko eta halakoen hedapena prebenitzeko.

Prozedura desberdinen garapena errazteko, Taldea saiatuko da prozedura izapidetzen ari den organoari aurkeztutako alegazioen edo epea luzatzeko eskaeren berri ematen, alegazioak aurkeztu bezain laster, aurkezpen-lekua adieraziz eta haien kopia bat ematen saiatuz.

Bestalde, ahalegina egingo da araudi aplikagarriaren interpretaziotik eratorritako auziak murrizteko, zergen antolamendu juridikoak horretarako ezartzen dituen tresnen erabilera bultzatuz.

Horretarako, ahaleginak egingo dira ikuskapen-prozeduran akordioak eta adostasunak sustatzeko, hori egingarria eta arrazoizkoa den prozedura-fase guztietan, Taldearen interes sozialaren defentsa legitimoari kalterik egin gabe.

Era berean, Taldea saiatuko da jarduten duen lurraldeetako Zerga Agentziak eskatutako informazioa eta dokumentazioa ematen, bai eta dagozkion prozedurak garatzeko garrantzitsua izan daitezkeen informazio guztia ere, ahalik eta modurik azkarren eta osoenean.

## **6. Compliance tributarioaren organoa**

*Compliance* tributarioaren organo bat eratzen da, botere autonomoekin eta kide anitzekoa, eta hari esleitzen zaio politika honek araututako *Compliance* tributarioaren sistemaren funtzionamendua eta eraginkortasuna gainbegiratzea.

*Compliance*-organoak aldizka ebaluatuko du politika fiskalaren implementazioa, eta informazioa emango die Auditoria eta Betetze Batzordeari eta Administrazio Kontseiluari *compliance* tributarioaren kudeaketa-sistema aplikatzearen ondoriozko emaitzei buruz.

*Compliance* tributarioaren organoak Kutxabanken Politika Fiskala behar bezala betetzen dela zainduko du, eta hura izango da hemen deskribatutako *compliance* tributarioaren sistemaren funtzionamendu ona gainbegiratzearen, zaintzearen eta kontrolatzearen azken bermatzailea.

*Compliance* tributarioaren organoak informazioa emango die behin eta berriz Goi Zuzendaritzari eta Administrazio Kontseiluari hainbat alderdiri buruz: *compliance* tributarioaren arauak betetzea, Taldeak aplikatutako politika fiskalak, eta, Administrazio Kontseiluak onetsi beharreko eragiketa edo gaien kasuan, halakoen ondorio fiskalak, arrisku-faktore garrantzitsua direnean. Era berean, *compliance* tributarioaren organoak urtero eman beharko dio Politika honen egoerari eta funtzionamenduari buruzko informazioa Auditoria eta Betetze Batzordeari.

## **7. Diziplinazko sistema**

Politika fiskal hau betetzea nahitaezkoa da. Beraz, aplikatu beharreko diziplinazko araubidea *Compliance* Penalaren Kudeaketa Ereduan ezarritakoa izango da, Langileen Estatutuan eta aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboetan aurreikusitakoarekin bat etorri egindako jokabidearen larritasunaren arabera. Politika fiskala ez betetzeak diziplinazko ekintzak eragin ditzake lan-arloan, hargatik eragotzi gabe beste arlo batzuetako erantzukizunak (zibilak, administratiboak eta/edo penalak).

Hala badagokio, Diziplina Batzordeak izango du Pertsonen Zuzendaritzak aurkeztutako ez-betetzeak eta zehapen-proposamenak aztertze eta, hala badagokio, zehatzeko ahalmena baliatzeko ardura.

## **8. Salaketa- eta kontsulta-kanala**

Taldeak konpromisoa hartzen du iruzurrezkoak izan daitezkeen jardunbide fiskalei buruzko konponbideak detektatzen eta bilatzen laguntzeko. Horretarako, barneko informazio-sisteman integratutako salaketa-kanal bat dauka. Kanalerako sarbidea Taldeko langile, hornitzaile edo hirugarren guztiek dute eskuragarri, maila hierarkikoa eta kokapen geografiko edo funtzionala gorabehera, "[Salaketa-kanala \(kutxabank.es\)](https://www.kutxabank.es)" izeneko. Horren bidez jakinarazi ahal izango dute Taldearen interesei zuzenean nahiz zeharka eragin diezaieketen irregulartasun fiskalak daudela.

Salaketa Kanala erabiltzen duten pertsona fisikoek babesa jasoko dute, Arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legean ezarritakoaren arabera.



Bestalde, zerga-kontsultak egiteko kanala ere badu Taldeak, bai eta *compliance* tributarioaren sistemari dagokionez ere.

### **9. Zabalkundea eta prestakuntza**

*Compliance*-organoak bultzatuko du Taldeak politika fiskalaren jarraipena eta zabalkundea egitea, bai eta politikan jasota dauden edo etorkizunean jaso daitezkeen jarduketa-printzipioak ere, Kutxabanken webgunean eta Taldeko erakundeen intranet sarean eskuragarri mantenduz.

Era berean, etengabeko prestakuntza-laguntza eskainiko die Taldeko kideei, eta langile berriei politikari buruzko informazioa emango die, bertan jasotako printzipioak irakurtzeko, ulertzeko eta betetzeko betebeharra exijituz.

### **10. Politika fiskal hau berrestea eta eguneratzea**

Erakundearen Administrazio Kontseiluak behar bezala adostu eta berretsi du Politika Fiskal hau, eta horrek mugarik gabe arautuko du.

Bestalde, Erakundearen Administrazio Kontseiluari jakinarazi beharko zaio Erakundearen indarrean dagoen Jokabideen kodean egin daitezkeen arau-aldaketen eta/edo egokitzapenen ondorioz egokia den edozein aldaketa, bere adostasuna ager dezan eta, hala badagokio, onetsi dezan.